

## **76. ALDIZKARIA - 2024ko apirilaren 16a**

### **2. ORDENANTZA**

#### **Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren karga-tasak 2024rako**

Barañaingo Udalak, 2024ko urtarrilaren 25ean egin ohiko osoko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen aldaketa hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren karga-tasetan, 2024rako.

Erabaki hori argitaratu zen 2024ko 32. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, otsailaren 13an, baita Barañaingo Udalaren iragarki-taulan paratu ere, eta espedientea 30 egunean egon zen jendaurrean. Hori dena, jarraikiz uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1 b) artikuluko manuei (Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea).

Aipatutako foru legearen 325.1.c) artikulua ezartzen duenarekin bat, eta inork alegaziorik aurkeztu ez duenez, behin betiko onetsizat jotzen da 2023rako aldaketa, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren karga-tasetan. Aldaketa argitara ematen da eranskinetan, behar diren ondorioak izan ditzan; hori dena, jarraikiz Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 326. artikuluan xedatutakoari.

Argitara ematen da, aipatutako agindua bete beharrez, eta ohartarazten da ezen ordenantza hauen aurka -xedapen administratiboak baitira- ez dela paratzen ahal errekurtsorik administrazio bidean, jarraikiz azaroaren 26ko 39/2015 Legearen 112.3 artikuluari (lege horrek hizpide du Administrazio Publikoen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea); hortaz, behin betiko onespren honen kontra ondoko bideren bat erabiltzen ahal da:

-Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, zuzenean Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, jarraikiz uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.b) artikuluari (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legea), bi hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

-Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita.

### **ERANSKINA**

***Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren karga-tasak 2024rako***

<b>URTEAK</b>	<b>KOEFIZIENTEA</b>	<b>MOTA</b>
Urtebetetik behera	0,02	%25,00
1	0,02	%25,00
2	0,03	%25,00
3	0,04	%25,00
4	0,05	%25,00
5	0,07	%25,00
6	0,08	%25,00
7	0,10	%25,00
8	0,11	%25,00
9	0,13	%25,00
10	0,14	%25,00
11	0,15	%25,00
12	0,16	%25,00
13	0,18	%25,00
14	0,20	%25,00
15	0,08	%25,00
16	0,06	%25,00
17	0,06	%25,00
18	0,10	%25,00
19	0,16	%25,00
20 edo hortik gora	0,28	%25,00